

# Hiztun berrien hizkuntza-identitatea: “nolako euskalduna naiz?”

**Ane Ortega**

“Begoñako Andra Mari” Irakasle Eskola. aortegaet@gmail.com

**Estibaliz Amorrortu**

Deustuko Unibertsitatea. esti.amorrortu@deusto.es

**Jone Goirigolzarri**

Deustuko Unibertsitatea. jone.goirigolzarri@deusto.es

**Jacqueline Urla**

University of Massachusetts. jurla@anthro.umass.edu

**Belen Uranga**

Soziolinguistika Klusterra. b.uranga@soziolinguistika.org

Sarrera-data: 2013-9-30 / Onartze-data: 2013-10-30

**Laburpena.** Azken 40 urteetako euskal hiztun-kopurua asko hazi da, batez ere, hiztun berrien, *euskaldunberrien* taldearen hazkunderari esker. Ikerketa honetan, euskal hiztun berrizat euskara familia-transmisioa ez den beste modu batean ikasi dutenak jo dira. Talde honen ezaugarriak ezagutzera euskararen etorkizunaren ikuspegitik erabakigarria izan daitekeela jakitun, euskaldunberrien inguruko ikerketa bat bideratu da, besteak beste, honakoak aztertzeko helburu duena: zein diren euskal hiztun berriek euskararekiko dituzten jarrerak eta motibazioak, euren burua euskal hiztun benetakotzat duten eta hizkuntza erabiltze edota transmititzeari buruz zein uste duten. Artikulu honetan *euskaldunberrien* inguruko ikerketa honen behin-behineko emaitza batzuk eskainiko dira. • **Hitz-gakoak:** *euskal hiztun berriak, hizkuntza-jarrerak, hizkuntza-identitatea, hiztun legitimoa.*

**Abstract.** Over the last 40 years the number of Basque speakers has grown significantly, thanks to the growth of the group of new Basque speakers. This piece of research focuses on those regarded as Basque speakers but who have learnt not through family transmission but by other means. Aware that knowledge about the characteristics of this group could be decisive from the perspective of the future of Basque, a piece of research was conducted into *new Basque speakers*, and its aim, among other things, was to find out the following: the attitudes and motivations of *new Basque speakers* with respect to Basque, whether they regard themselves as real Basque speakers and what they think about the use or transmission of the language. This article will be offering provisional results on the research into new Basque speakers. • **Key words:** *new Basque speakers, language attitudes, language identity, legitimate speaker.*

## **EUSKAL HIZTUN BERRIEN PROIEKTUA<sup>1</sup>**

### **I**

Azken 30 urteetan Euskal Autonomi Erkidegoan (EAE), euskarari buruzko hizkuntza-politika aktiboaren ondorioz, euskararen gainbeherako prozesuari itzulia eman zaio, gutxienez, hiztun-kopuruari eta euskararen erabilera-esparruen zabaltzeari dagokionean. Hala ere, euskara oso urrun dago egoera normalizatu batetik, eta oraindik ahula da oso, maila askotan. Esate baterako, populazioaren %50,6k ez du euskaraz hitz egiten EAEn, eta %32 elebidun pasiboak dira, hau da, euskara ulertzen duten arren, ez dute hitz egiteko gaitasunik (Eusko Jaurlaritza 2012). Euskararen ahulezia erakusten duen beste datu bat da euskararen kaleko erabilera ez igotzea ezagutzaren mailaren proportzioan (Soziolinguistika Klusterra 2012). EAEz gainerako bi lurraldeetan egoera are kezkarriagoa da: Nafarroan hiztun-kopurua %11,7an geratu da, eta Iparraldean, berriz, hizkuntzaren transmisioa eta erabilera behera doa etenik gabe.

Euskara helduaroan ikasi duten hiztun-kopurua oso garrantzizkoa da, baina hazkunde benetan handia 25 urtetik beherakoan artean gertatzen ari da, hezkuntzaren eredu elebidunari eta murgiltze-ereduari emandako babesari esker. Babes horren erakusle da, esate baterako, 3 urtetik gorako haurren artean murgiltze-ereduak izandako goranzko bilakaera: 1983-84 ikasturteko %14tik 2013-2014ko %76ra (Eusko Jaurlaritza 2013.)


Ondorengo irudiak euskal hiztun berrien tipologiaren bilakaera erakusten du. Ikus daitekeenez, 1991. urtean jatorrizko euskal hiztunak (euskaldun zaharrak) gehiengo ia osoa ziren ia adin-tarte guztietan. Bi hamarkada ondoren, aldiz, talde gazteen artean ez da horrelakorik gertatzen. Gazteen artean elebidunen kopuruak igoera nabarmena izan du, eta gainera euren artean are garrantzizkoagoa da hiztun berrien kopuruaren igoera. Izan ere, 16-24 urte bitarteko taldean %60 euskal hiztuna da 2011 urtean, horien erdia baino gehiago euskal hiztun berriak.

---

***Esan daiteke  
euskararen  
normalizazioa  
eta  
biziberritzearen  
etorkizuna hiztun  
berrien jarrera  
eta  
jokabideengan  
badagoela, neurri  
handian.***

**Beraz, ikerketa honetan, ikergai-subjektuak euskara familia-transmisioa ez den beste bide batean ikasi duten pertsona guztiak dira.**

**1. irudia. Euskaldun zaharren, jatorrizko elebidunen eta euskaldun berrien bilakaera adinaren arabera. EAE, 1991-2011**



*Euskaldunberria* adiera euskara helduaroan ikasi duten pertsonak izendatzeko erabili izan da, tradizioz. Gaur egun, ordea, hezkuntza-sistemari esker, beste moduko euskal hiztunak sortzen ari dira; izan ere, murgilketa ereduan ikasten dutenak horietatik bereizten dira ikasteko eragatik eta ikasi duten garaian zuten adinagatik. Ulegarria da euskal gizarteak belaunaldi gazteengan jarri duen itxaropen handia. Halere, badira ondo ezagutzen ez diren gaiak eta ikertzea merezi duten alderdi asko honen inguruan, esate baterako, arestian aipatutako eza-gutzaren hazkunde handiaren eta erabilera nabarmen apalagoaren arteko zergatia.

Esan daiteke euskararen *normalizazioa* eta biziberritzearen etorkizuna hiztun berrien jarrera eta jokabideengan badagoela, neurri handian. Hala ere, oso ikerketa gutxi egin da gai honen inguruan, eta hutsune hori betetzera dator ikerketa hau. Europako hainbat hizkuntza gutxituetako ikerlarien artean ere, berriki, gai honi behar bezalako garrantzia emateko beharrezana ikusi da. Horren adibide dira argitaratzeko bidean dagoen *International Journal of the Sociology of Language* aldizkariaren hizkuntza gutxituetako hiztun berrien inguruko zenbaki berezia (O'Rourke, Pujolar eta Ramallo agertzeko) eta Europako Batasunak diruz lagundutako *New Speakers in a Multilingual Europe: Opportunities and Challenges* (COST IS1306) sarea, non immigrazio-egoeretako eta lanerako H2 bat ikasten duten hiztun berriez gain, hizkuntza gutxituetako hiztun berriak aztertzen diren <sup>2</sup>.

## 1.1 Subjektuen definizioa

Honako hau hiztun berrien inguruko abiapuntuko ikerketa da. Horregatik, ikergai-subjektuaren definizioa berariaz egin da ahalik eta modu irekienean. Horrela ziurtatu da ez dela hiztun berrien profilik baztertuko hizkuntzaren, kulturaren edota jarrera politikoaren inguruko aurreiritziengatik.

Beraz, ikerketa honetan, ikergai-subjektuak euskara familia-transmisioa ez den beste bide batean ikasi duten pertsona guztiak dira. Definizio hori bera da Eusko Jaurlaritzako Euskararen Adierazle Sistemari (EAS) erabiltzen dena: “euskaldun berria da ama-hizkuntza euskara ez beste hizkuntza izanik, euskaraz ondo ulertu eta hitz egiten duena”. Baina, gertatzen da definizioak biltzen dituen kideen artean hainbatetan, euren burua ez definitzea *euskaldunberri* modura, aurrerago ikusiko dugun modura.

Ikerketa honek 18-55 urte adin-tarteko subjektuak hartu ditu ikergai. Kontuan hartu den euskararen gaitasun-maila Europako Erreferentzia Markoak ezarritako C1 mailakoa izan da (Europako Kontseilua 2001), edota euren bizitza sozialean edo profesionalean beharrezko funtzio komunikatiboak betetzeko gai izatea.

## 1.2 Ikerketaren helburuak

Ikerketaren helburu nagusia euskal hiztun berrien deskripzioa edo argazki orokorra egitea da. Horretarako, honako tarteko helburuak erdiestea espero da:

1. Euskal hiztun berrien jarrerak, esperientziak, motibazioak, eta euskararen alde zer egiteko prest dauden azalera.
2. Identitatearen konfigurazioan euskal hiztun berriei euskara ikasteak zer ekarpen egin dien zehaztea.
3. Euskararen erabilera eta transmisioarentzat lagungarriak diren elementuak, eta baita kaltegarriak edo inhibitzaileak direnak, aurkitzea.
4. Euskal hiztun *legitimo* bezala hautemateko euskal hiztun berrien eta gainerakoen auto-pertzepzioan zein elementu diren eraginkorrak identifikatzea. Bereziki, euskal hiztun legitimo bezala hautemateko euskalkien edota bat-bateko erregistro ez-formalen erabileraren garrantzia zehaztea.
5. Hizkuntza gutxituen ikerketaren testuinguruan, gaur egungo nazioarteko *hiztun berrien* eta *jatorrizko hiztunen* inguruko eztabaidari ekarpena egitea.

---

**Ikerketa honek 18-55 urte adin-tarteko subjektuak hartu ditu ikergai. Kontuan hartu den euskararen gaitasun-maila Europako Erreferentzia Markoak ezarritako C1 mailakoa izan da.**

**Jarrerren  
inguruko  
tipologia  
definitzea,  
euskalduberrien  
profil  
desberdinen  
tipologia  
proposatzea, eta  
erabilera eta  
transmisioan  
eragiten duten  
faktoreen  
inguruan hainbat  
ondorio orokor  
ateratzea.**

Emaizta modura honako ekarpenak egitea espero dugu: jarrerren inguruko tipologia definitzea, *euskalduberrien* profil desberdinen tipologia proposatzea, eta erabilera eta transmisioan eragiten duten faktoreen inguruan hainbat ondorio orokor ateratzea.

### 1.3 Metodologia

Ikerketa honek metodologia kuantitatiboa eta kualitatiboa konbinatzen ditu, lehen ere, emaitza interesgarriak eman dituen metodologia delako, hain zuzen (Ikus Amorrortu et al 2009).

- Ikerketa kualitatiboaren helburua euskal hiztun berrien profil desberdinetakoen motibazioak eta jarrerak azaleratzea da. Datuak biltzeko *eztabaida-taldeak* eta *bakarkako elkarrizketa erdi gidatuak* erabili dira, bakoitza metodo propioarekin: eztabaida-taldeak moderatzaileraren interbentzio minimoarekin egin dira, modu horretan parte hartzaileek aukera dutelako eurentzat benetan garrantzizkoak diren gaiak ateratzeko. Ondoren, hiztun-profil espezifikoak bilatu nahi izan direnean banakako elkarrizketa erdi-gidatuak egin dira. Datuen analisirako *Edukien Analisia* (Mayring 2000) metodoa erabili da, hierarkikoki antolaturiko kategorien sistema eraikitzeko. Proiektuaren helburuarekin bat eginez, hau da, euskal hiztun berrien inguruko lehen deskripzioa egiteko, metodo induktiboa edo *behetik gorako edukien analisia* lehenetsi da. Beraz, kategoriak datu-basetik abiatuta sortu dira.
- Ikerketa kuantitatiboaren helburua ikerketa kualitatiboak emaniko gai edo auzi bereizgarri, garrantzizko edo pertinenteak neurtzea da. Gaiok berariaz diseinatutako galdesorta baten bidez neurtuko dira, EAEko hiztun berrien populazioarekiko estatistikoki adierazgarria den lagin batean.

Orain arte, ikerketa kualitatiboari dagokion datu bilketa osoa egin da: 9 eztabaida-talde eta 9 bakarkako elkarrizketa erdi-gidatu, guztira 75 hiztun berrik emandako datubasea, hain zuzen. Datu analisiari dagokionez, eztabaida-talde denak NVivo programaren bidez kodetu dira eta lehen mailako analisia egin da.

Artikulu honetan, ikerketaren lehen emaitzak eskainiko dira, behin-behinekoak ezinbestean. Erabiliko diren datuak bost eztabaida-taldean bildutakoak dira. Horietako lau partaideen ezaugarri soziodemografiakoei dagokienez talde heterogeneoak dira eta Bilbon, Gasteizen, Bermeon eta Zumaiian egin dira. Bosgarrena ikasle unibertsitarioek osatutako

talde homogeneouskoa izan da: partaide denak murgiltze-ereduan euskaraz ikasitako gipuzkoarrak izan dira.

## **2. HIZTUN BERRIEN PROFIL DESBERDINEI HURBILKETA**

**I**

Orain artean lortutako emaitzen arabera, ikerketan parte hartu duten pertsonen hizkuntza-esperientziak azaltzeko eta hiztun berrien profila deskribatzeko aldagai emankorrenak honakoak dira: (a) ikasketa-esperientzia zein izan den eta zein adinarekin burutu den, (b) euskara erabiltzeko aukera duen, eta (c) ikasitako hizkuntza-aldaera zein den eta erabilera nolakoa den.

### **2.1 Ikasketa-esperientzia adinari lotuta**

1970 hamarkada amaieran, euskararen inguruko hizkuntza-politika abian jartzearekin batera, EAEn aldaketa historiko garrantzizkoa gertatu zen euskarari dagokionean, helduen euskalduntze-alfabetatzearen arrakastarengatik eta, batez ere, euskarak hezkuntza-sistema arautuan hartu zuen lekuagatik. Harez gero, asko eta asko dira euskara etxetik kanpo ikasi duten pertsonak, lehen ez bezala. Horien artean, ordea, bi talde bereizi dira ikasketa-adinaren eta -motaren arabera:

- a) Gaur egun 35-40 urte baino gehiago duten euskal hiztun berriak. Oro har, euskaraz hitz egiten helduaroan ikasi dute, euskaltegietan gehien bat, haurtzaroan euskara ikasteko ia aukerarik ez baitute izan. Ikerketa soziolinguistikoaren terminologian, eta baita herri hizkeran ere, hori izan da *euskaldunberrien* profil historikoa. Hiztun berri horien artean asko eta asko euskara ikasteko motibazio ideologikoak izan dituzte; Francoren erregimenaren aurkako erresistentziari lotutakoak edota identitate balioari lotutako motibazioak, hain zuzen. Garai hurbilagotan, euskara ikasten duten pertsona nagusi ugari arrazoi instrumentalak ere erakutsi dituzte euskara lanbide jakinetan gero eta beharrezkoagoa delako.
- b) Gaur egun 35-40 urte baino gutxiago duten hiztun berriak. Salbuespenak salbu, euskara eskolan ikasi dute haurtzaro eta gazte-aroan murgiltze-eredu partzial edo osoetan.

Bi talde horien artean desberdintasun nabarmenak antzematen dira gure datuen arabera, bai euskara ikasteko motibazioari dagokionez, bai euskararekiko erakusten duten konpromiso desberdinagatik, eta baita euskara ikasteak ekarri dien onurari dagokionean ere.

---

**Artikulu  
honetan,  
ikerketaren lehen  
emaitzak  
eskainiko dira,  
behin-  
behinekoak  
ezinbestean.**

**Hiztun berrien  
profilak  
deskribatzeko  
aldagai  
emankorrenak  
honakoak dira:**  
**(a) ikasketa-  
esperientzia zein  
izan den eta zein  
adinarekin  
burutu den, (b)  
euskara  
erabiltzeko  
aukera duen, eta  
(c) ikasitako  
hizkuntza-  
aldaera zein den  
eta erabilera  
nolakoa den.**

Betiko *euskaldunberrien* artean, hau da, aurrez aipaturiko (a) taldekoen artean bildutako ikasteko motibazioen artean *aberaste pertsonala, euskararen berreskuratze-prozesuan parte hartzea* edo *integrazioa* modukoak jaso dira. Horrez gain, euskara ikasteko behar izan duten denbora eta ahalegina aitortzen dute gehienek baina, aldi berean, onura handiak jaso dituztela aipatzen dute, adibidez, *mundu berri bat deskubritu izanaren onura*, euskarari loturiko mundua hain zuzen; integrazioaren bitartez euskaldun zaharrekin hitz egiteko gai izatean *komunitatearen kide bihurtzea* oso ondo baloratzen dute, bai eta *euskal kultura-produkzioak ulertzeko gai izatea*, bertsolariak esate baterako.

- (1) — Batzutan nik komentaten dot igual erdaldun batzukaz edo nagonian, ba bai komentaten dot, “zuek esfortzua egin, ze hori ez da izango bakarrik esfortzua ba, lanerako, edo, gero zuen bizitzan jasoko duzue hori, satisfakziño hori eukingo dozue”. (BE-C,81<sup>3</sup>).  
— Bai, hori eta gehixago, hori eta gehixago, entzutia, bakarrik entzutia bertsolariek eta ulertutia, hori bakarrik, ya da. Neretzat izan da... (BE-B, 82).
- (2) — Neri bide asko ireki dizkit eta jende pilo batekin bestelako harremanak. Badau jende pilo bat, nolabait, ez dakit, tratuan eta hori beraiek ere eskertu, eskertzen dutela hori, eta (ZU-F, 268).

Belaunaldi gazteetakoek, (b) taldekoek, euskara eskolan ikasi dutenek, euskara ikastea berez eta emanda etorri zaien zerbait bezala hartzeko joera dute, euren gurasoak izan zirelako erabaki hori hartu zutenak eta euren bizitzan euskara beti egon delako presente.

Bi talde horien artean euskarari buruzko hautemateak eta atxiki-mendua oso desberdinak dira, baita erabiltzeko konpromisoa eta modua ere. Halaber, egoera elebidunak kudeatzeko orduan hartzen duten jarrera edota euskararen etorkizuna irudikatze modua ere desberdina dute. Azpimarra daiteke, azkenik, euskal hiztun moduan euskararekiko eta komunitatearekiko duten ardura ere ez dela berdin agertzen bi talde horietan. Ikerketa honetan belaunaldi gazteenei arreta berezia jarri diegunez, artikulua honetako 4. atalean gai honetara itzuliko gara.

## **2.2 Hizkuntza erabiltzeko aukera**

Aurrez egindako ikerketak (Amorrortu eta al. 2009) erakutsi zuen hiztuna bizi den lur-eremuan dagoen euskal hiztun-portzentajeak garrantzi handia duela hizkuntza ikasteko esperientziaren nolakotasunean,

eta euskara erabiltzeko aukera izateko, jakina. Ikerketa berak erakutsi zuen are garrantzizkoagoa dela sare sozialetan parte hartzeko hiztunaren sarbide-aukera, batez ere, sare horietan mundu emozionalak pisurik badu, izan familia izan lagunak, edota lanpostuarekin lotuta badaude. Hau guztia kontuan hartuta aukeratu ziren ikerketa-subjektuak, euskararekin kontaktua izateko aukera desberdinak dituzten partaideak izateko.

Aurreikus daitekeen bezala, euskal hiztun portzentaje baxuko eremu geografikoetan, sarri, euskaraz hitz egiteko aukera gutxi dago, batez ere, hiztuna euskal sare sozial bateko kide ez bada. Gasteizen, esate baterako, nahiz eta euskal hiztun-kopurua populazioaren %22,4 izan (Eustat 2013), euskararen presentzia baxua da. GA-A partaideak honela deskribatzen du egoera:

- (3) — Jende asko gara, baina ez gara, gure artean, ba ez dago sarerik, ez dago... Ni beti harritzen naiz, beti ezagutzen duzu jende berria, eta ikusten dezu jende askok dakiela baina, bakoitzak bere bizitza egiten du eta... Baina ni seguru nago gure artean guztiok ezagutuko bagina, euskara entzungo zan Gasteizen askoz gehio, ba, ez dakit, sei elkarriketatik bat, ba sei elkarriketatik bat (GA-A, 36).

Euskal hiztun berri asko bikotekidearen familia edo lagun-talde euskaldunetan integratu dira. Baina ez da beti horrela gertatzen, eta holakoetan, sarri, frustrazio-iturri izan daiteke. Nolabait esan, euskal komunitate zabalaren parte izateko euren borondatea ezerezean geratu da, eta hori gutxi ez balitz bezala, euren hizkuntza-gaitasuna ere murrizten nabaritzen dute erabilera-ezaren poderioz:

- (4) — Inork ere ez daki euskaraz, nire inguruan inork, bakarrik lankideek eta erreta daude... (GA-C, 42).

Hala ere, euskal hiztun-portzentaje txikiko zonaldeetan aukera gutxi izan arren, hiztunak eurak antolatzen dira, sarri, euskaraz hitz egiteko, “praktika-komunitateak” (Meyerhoff 2002) eratuz. Horretarako, euskaraz hitz egiten duten dendariak bilatzen dituzte, euskarako eman-kizunetan eta blogetan parte hartzen dute edo *berbalagun* edo *kuadrillategi* bezalako egitasmoetan (euskal hiztun boluntarioak euskal hiztun berriekin elkartzen dira euskaraz hitz egiteko eta praktikaren bitartez ikasteko). Egoera soziala kontuan hartuta, azpimarragarria da hiztun berriek euskaraz hitz egiteko aukerak sortzeko egiten duten ahalegina:

---

**Gaur egun 35-40 urte baino gehiago duten euskal hiztun berriak.**

**Hori izan da euskaldunberrien profil historikoa. Hiztun berri horien artean asko eta asko euskara ikasteko motibazio ideologikoak izan dituzte.**



**Gaur egun 35-40 urte baino gutxiago duten hiztun berriak. Salbuespenak salbu, euskara eskolan ikasi dute haurtzaro eta gazte-aroan.**

- (5) — Ni, adibidez, bankura joaten banaiz eta jartzen badu "Badakit euskaraz", beti erabiltzen dut. / Edo zenbait dendetan, adibidez, badakizu, dendariak euskara badaki, neuk aprobetxatzen ditut aukera horiek euskaraz egiteko, nahiz eta ez ondo egin, bueno... (GA-C, 45/49).

### 2.3 Hizkuntza-aldaera

Euskal hiztun berri gehienek euskara eskolan edo heldu-aroan ikasi dutenek, euskara batua ikasi dute. Bi aldaera euskara batua eta euskalkia dakiten euskaldun zaharrek, ordea, ahozko egoera ez formaletan tokian tokikoa erabiltzeko joera dute; hiztun berrien ahozko jarduna, aukera horren ezean, ezegokitzat, "artifizialtzat", "ez jatortzat" hartzen da, sarri.

Badirudi erabilitako aldaerak, tokian tokikoa edo batua izan, eragin handia duela euskal hiztun berri askoren hizkuntzarekiko auto-pertzepzioan. Horietako askok *inbidia* sentitzen dutela aitortzen dute euskalkiaz hitz egiten dutenengatik. Euren hizkeraren azterketa eginez gero, nabari da, ordea, euskalkiaren hainbat ezaugarri linguistiko bereganatu dituztela, batzuetan berariaz eginiko ahaleginaren ondorioz, eta besteetan oharkabean integratuta "jatorrago" sentitzeko asmoarekin. Euskalkietako ezaugarriak euren hizkeran txertatzea, gainera, estrategia komuna da.

Hala ere, hiztun berrien auto-pertzepzioaz duen eraginagatik euskara batua eta euskalkien gaia eztabaidatzen denean hiztun berriarentzat hiztun-komunitate zehatz bateko kide izateko garrantzizkoa zer den ez dago garbi: tokian tokiko aldaera erabiltzea ezinbestekoa da? ala erregistro lagunartekoa, ez-formala menderatzea? Oztopoa zein da, tokian tokiko aldaeraren gabezia ala eredu ez-formalarena?

### 3. EUSKAL HIZTUNEN AUTO-PERTZEPZIOA: "ZER MOTATAKO EUSKAL HIZTUNA NAIZ NI?"

I

Parte-hartzaileen auto-pertzepzioaren gaia behin eta berriro atara da ikerketako eztabaida-taldeetan, partaideek eurek mahai-gaineratuta, eta erdi zuzendutako elkarrizketetan ikerlarietara aterata. Gainera, partaideek interes handia erakutsi dute haien erantzuna azaltzen. Labur-labur honakoak dira euskal hiztun berrien auto-pertzepzioaren in-guruko adierazpen nagusiak:

- (a) "Ez naiz euskaldun zaharra"
- (b) "Euskaldunberria naiz"
- (c) "Euskalduna naiz"

### 3.1 “Ez naiz euskaldun zaharra”

Ikerketan parte hartu duten pertsonetatik inork ez du bere burua euskaldun zahartzat hartzen. Eta hori esateko hamaika arrazoi ematen dituzte. Horien artean gailentzen dena honakoa da: ezin dira *euskaldun zaharrak* izan euskara ez dutelako familian ikasi.

Auto-pertzepzio hori beste hizkuntza-egoera batzuetan azaldu den “ama-hizkuntzaren ideologiak” eraginda dago (Skutnabb-Kangas eta Phillipson 1989). Izan ere, familian ikasitako hizkuntzak bizitza osoan zeharreko aldatu ezin den hizkuntza-identitatea mugatzen eta erabat baldintzatzen duela pentsatzea ohikoa da. Horrela, familian euskara ez bada ikasi, ideologia horren arabera, berdin da hiztunak nolako gaitasun komunikatiboa lortu duen edota bere identitatean euskarak berebiziko garrantzia duen, *euskaldun zahar*, zentzu teknikoan esanda, ezin da izan.

Beraz, zein adiera erabiltzen dituzte ikerketan parte hartu duten hiztunberriek euren identitate linguistikoari erreferentzia egiteko? Bi adiera hauek erabiltzen dituzte:

- *Euskaldun berria* naiz
- *Euskalduna* naiz

### 3.2 “Euskaldun berria naiz”

Askotariko profilak daude definizio hori bereganatzen duten pertsonen artean: tradizionalki *euskaldunberria* euskara heldu aroan ikasi duena da, baina, belaunaldi gazteek beste ezaugarri batzuk ere aipatzen dituzte euren burua *euskaldunberri* modura definitzeko orduan. Honakoak azpimarratzekoak:

- Familiako lehen hizkuntza (H1), ama-hizkuntza, gaztelania da. Euskara eskolan edo helduen heziketa-programetan ikasi dute.
- Gaztelania eguneroko bizitzan gehien erabiltzen duten hizkuntza da; sarri, erabiltzen duten hizkuntza bakarra.
- Gaitasunaren ikuspegitik gaztelania hizkuntza nagusia dute.
- Euren hitzak erabiliz, “buruko eskemak” gaztelaniaz dituzte, hau da, pentsamenduak eta barne-gramatika gaztelaniazkoak dira eta euskarara itzultzen dituzte.

Ohar gaitzkeenez, arrazoi horietako asko hizkuntzari eta elebitasunari buruzko euren sinismenen adierazle dira. Ondorengo aipuak esandakoaren lekuko:

---

**(a) taldekoen artean bildutako ikasteko motibazioen artean aberaste pertsonala, euskararen berreskuratze-prozesuan parte hartzea edo integrazioa modukoak jaso dira.**

**Belaunaldi  
gazteetakoek, (b)  
taldekoek,  
euskara eskolan  
ikasi dutenek,  
euskara ikastea  
berez eta emanda  
etorri zaien  
zerbait bezala  
hartzeko joera  
dute, euren  
gurasoak izan  
zirelako erabaki  
hori hartu  
zutenak eta  
euren bizitzan  
euskara beti egon  
delako presente.**

- (6) — Eguneroko bizitzan gaztelania erabiltzen dudalako gehienetan, eta gañera, ba hori, etxean txikitatik gaztelania ikasi nebalako, gero ikastolan sartzera hasi nintzen euskera ikasten. Baña, zelan da, lengua madre, edo hori, ama hizkuntza gaztelania izan da, beraz, horregatik hartzen dut neure burua euskaldunberri. (BI-D, 164)
- (7) — Nik askotan pentsatu behar dodaz lehenengo gauzak gaztelaniaz gero euskeraz botateko, adibidez. Beharbada hor egongo litzateke ezberdintasuna, kasu horretan, eta neuk, bueno, gaztelaniaz pentsetan dot. Bueno, hasten banaz euskaraz berbetan, ba bueno, automatikoki irtetzen zait ere, baña printzipioz nire pentsamoldeak antolatzeke hizkuntza gaztelania da. Niretzako hor egongo litzateke beharbada ezberdintasuna, euskaldunbarri baten kasua edo euskaldun zahar batena. (B1-D, 188)

### 3.3 "Euskalduna naiz"

Zein dira *euskaldun* modura definitzen diren euskal hiztun berriak? Zergatik nahiago dute adiera hori? Datu-basearen azterketaren ondoren honako arrazoi hauek nagusitzen dira haien burua "euskalduntzat" dutenen artean:

- Gaitasun maila altua eta etorri handia dute.
- Sare euskaldunetan integratuta daude.
- Eguneroko bizitzan eta esparru sozial desberdinetan euskara erabiltzen dute.
- Tokian tokiko aldaera edota erregistro-aldakortasuna darabilte, edo haien hurbilpen edo egokitzearen bat behintzat.

Euskara heldu aroan ikasi dutenen arteko askok gaztelania dutela hizkuntzarik sendo edo indartsuena pentsatzen dute, euskaraz hitz egiterakoan errazten direla eta alde handia dagoela euren eta euskaldun zaharren hizkeren artean. Zonalde oso euskaldunetan, alabaina, belaunaldi gazteen artean hiztun berri askok euskara hizkuntza sendoagotzat edo indartsuagotzat dute, etxeko hizkuntza gaztelania izan arren. Esan daiteke, beraz, lortutako gaitasun-maila ona izateak hiztunaren auto-pertzepzioarako oso garrantzi handikoa den arren, behin gaitasun-maila jakin bat lortuz gero, beste faktore batzuk bihurtzen direla garrantzizkoagoak, esate baterako, erraztasunez hitz egiteko trebezia edo komunitateko kide izatearen kontzientzia.

Ondorengo aipua Zumaian bildutako hiru kideren arteko elkarrizketaren sekuentzia bat da. Gogoan izan behar da Zumaian hizkuntza-

gaitasuna oso altua dela, populazioaren %71,5 (Eustat 2013). Elkarrizketa honetan parte hartzen dutenak ZU-C 25 urteko emakumea, ZU-A 43 urteko gizona eta ZU-B Estatu Espainiarreko beste lurralde batetik etorri eta euskara 20 urte zituela ikasi duen 51 urteko gizona dira. ZU-C-k dio bera ez dela *euskaldun zaharra*, baina ez du bere burura *euskaldun berritza* hartzen; bera *euskalduna* da, euskal hiztuna bere soiltasunean. Ostera, denek onartzen dute ZU-A eta ZU-B euskaldunberriak direla helduaroan ikasi dutelako euskaraz hitz egiten.

- (8) — Ni euskalduna. Ez det esaten ez berri, ez zahar, ez, ni euskalduna naiz euskera erabiltzen detelako. Baina esaten detenean etxian hona netorrela, nere mutilak esan dit, “Baina zu ez zea euskaldunberria”. “Klaro ezetz, baina bai ama aldetik, ama hizkuntza da erdera, orduan horregatik”. (ZU-C, 56)  
— Klaro, guk ulertzen duguna euskaldunberria, gu bai gerala euskaldunberria. (ZU-B, 57)  
— Bai, ezta? Ya helduagoak ikasi dugula. (ZU-A, 58)

Baina adjektiborik gabeko *euskaldun* sentitzearena ez da soilik gazteen artean gertatzen. Ondorengo aipuak Bilbon eginiko eztabaidataldekoak dira. Bertan BI-C euskara heldu aroan ikasi duen 49 urteko gizona da. Bere burua euskaldun bezala definitzen du, batez ere, euskaldun zaharrek hala hautematen dutelako. Zergatik? Batez ere, erabiltzen duen aldaera ez delako euskara batua; berak mendebaleko hizkeraren ezaugarriak eta lagun arteko hizkera integratu ditu bere hizkeran.

- (9) — Urte asko emon dodaz, esan bezala, Gernika, Gernika inguruan, eta gero Lea-Artibaitik, eta lana dela-eta, eta nik ikusi dot be bai hangoen erreakzioa, eta hainbatetan harritu egiten dira jakitean euskaldun barrixa nazela. (...) igual berba eitxeko era, edo ez dakit, ez dakit (...) Izan leike doinua, izan leike hiztegia... (BI1-C, 166, 170, 172)  
— Batueraz ez duzulako egiten. (BI1-A, 173)  
— Gernikeraz egiten, edo... (...) ni pozik, pozik eta harro. (BI-C, 176)  
— Eta zuk zure burua euskaldunberritza daukazu edo etapa hori ja...? (BI1-M1)  
— Euskalduntzat, ez barrixe, ez zaharra, ez. (BI1-C, 180)

**Aurrez egindako ikerketak (Amorrortu eta al. 2009) erakutsi zuen hiztuna bizi den lur-eremuan dagoen euskal hiztun-portzentajeak garrantzi handia duela hizkuntza ikasteko esperientziaren nolakotasunean, eta euskara erabiltzeko aukera izateko, jakina.**

**Euskal  
komunitate  
zabalaren parte  
izateko euren  
borondatea  
ezerezean geratu  
da, eta hori gutxi  
ez balitz bezala,  
euren hizkuntza-  
gaitasuna ere  
murrizten  
nabaritzen dute  
erabilera-ezaren  
poderioz.**

Elkarrizketa berean BI-C-en sentimenduak, “pozik eta harro” dagoela aitortzeak, euskaldun zahartzat hartzearen berezko asebetetzea adierazten du. Euskaldun zahar modura hartu nahi izateak badu *legitimotasunarekin* lotura, hiztun natiboei *berez* atxikitako *jatortasun* edo *benetakotasunarekin* hain zuzen. Gai hori oso presente dago ondorengo aipuetan ere. Kasu honetan, BI-C 41 urteko emakumeak euskaraz hitz egiten ikasi zuen ezkondu eta Bermeora familia euskaldun baten ingurumarira bizitzera joan zenean. Bere burua *hiztun berria*, *euskaldun berria* den edo ez erantzuteko honako deskripzioa egiten du, azken esaldietan *benetako* euskal hiztuna dela aldarrikatuz.

(10)— Horrelako sailkapenak oso gatzak direz esaten baietz edo ezetz. Berria ze zentzutan? Zentzu baten bai ze ikasi dot, ikasi dot gehiena, guztia ez esate arren, ze egia esan gero, ezkondu eta gero, ba familien eta kalien eta, ba ikasi dot asko entzunez edo, ba hiztegi aldetik batez be, baserritar artien, ze amaginarreba eta aitaginarreba eta hango mundua, gauza bat da otzara bat, zabala, beste bat lastozkoa, beste bat... (BE-C, 284)

Laburbiltzeko, ikerketan parte hartu dutenek euren burua definitzeko erabiltzen dituzten bide desberdinen azterketaren emaitzetatik honako ondorioak atera daitezke, behin-behinean:

- Jokoan dagoen dikotomia ez da *euskaldun zahar* ala *euskaldun berri* kategorien artekoa, baizik eta *euskaldunberri* eta *euskaldun* kategorien artekoa.
- Horrela, eztabaida beste parametro batzuetan kokatzen da. Auzia ez da pertsona bat hiztun natiboa den ala ez jakitea, baizik eta *benetako* hiztuntzat daukan bere burua ala *benetako* hiztuntzat izateko *zerbaiten gabezia* sumatzen ote duen.

Emaitza hauek azalduta, “benetakotasuna” eta “legitimitatea” adierak, labur bada ere, argitu behar dira. Hizkuntza gutxituetako testuinguruetan, hiztun berrien hazkunde handiak hizkuntza horretako hiztun legitimotzat, *benetako* zentzuan, jatorrizko hiztuna hartzen zuen ideologia auzitan ipin dezake. Mota horretako tira-birak, besteak beste, galiziera eta katalanaren testuinguruan (O’Rourke eta Ramallo 2013 eta Woolard 2008, hurrenez hurren) deskribatu dira. Euskaldunberriek normalean euskara batua ikasten dutela kontuan hartuta, nola interpretatu behar dira partaideek erabiltzen dituzten aldaera ezberdinei buruz

egiten dituzten iruzkinak? Gure datuek tokian tokiko aldaerekiko balorazio positiboa erakusten dute, eta hori hizkuntzaren benetakotasunaren balioari (ingelesez “authenticity” Bucholz 2003; Woolard 2008) ematen zaioan garrantziagatik dela interpretatu da: euskaldunberri askorentzat tokian tokiko aldaerak dira benetakoak direnak, eta horrek euskara batuari baino legitimitate handiagoa ematen die. Ondorioz, badirudi tokian tokiko aldaera bat erabiltzeak legitimitatea ematen diola hiztunari, hiztun onak bezala antzematen dira. (Benetakotasun eta legitimitatearen balioetan sakontzeko ikus Urla eta beste (agertzeko).

#### 4. EUSKAL IDENTITATE LINGUISTIKOA HIZTUN GAZTEEN ARTEAN

Euskara eskolan ikasi dutenek zer-nolako hizkuntza-identitatea erakusten duten bereziki interesgarria da, orain artean ezagutu ohi denetik ideia bereizgarriak aurreikusi daitezkeelako. Euskara murgiltze-programetan ikasi duten ikerketa honetako pertsonak 18-35 urte bitarteko hiztun berriak dira. Kontuan izan behar da Euskal Autonomia Erkidegoan murgilketa sistema goiztiarrak oso ohikoak direla eta, oro har, haurrak 2 urterekin, edo gazteago, eskolatzen direla. Gauzak horrela, euskara haurren gehiengoaren lehen sozializazio-hizkuntzetako bat da.

Hala ere, talde hori, murgiltze goiztiarrean euskara ikasitakoena, ezberdina da 1. irudian ageri den *jatorrizko elebidunen* taldetik. Lehen taldekoek, murgiltze goiztiarrean ikasitakoek, De Houwer-ek (2009) definitzen duen *Bigarren Hizkuntzaren Jabekuntza Goiztiarra* (*Early Second Language Acquisition (ESLA)*) baliatuz ikasi dute euskara. *Jatorrizko elebidunek*, aldiz, *Bi Hizkuntzen Jatorrizko Jabekuntzaren* bitartez (*Bilingual First Language Acquisition (BFLA)*) ikasi dute euskara, hau da, lehen momentutik familiaren barruan bi hizkuntzaz jabetu dira. Egile horrek argi asko bereizten ditu elebidun bilakatzeko bi modu desberdinak.

De Houwer-en arabera, *Bigarren Hizkuntzaren Jabekuntza Goiztiarraren bitartez (ESLA)* haurrak bigarren hizkuntzara (H2) sozializazio goiztiarra badu ere, bere garapena eta *jatorriz bi hizkuntzen jabe egiten direnena (BFLA)* desberdina da. Euskal testuinguruan D erudian murgiltzean ikasi duten haurren zenbait ezaugarriak ideia hori berresten dute. Izan ere, Almgren et al. (2008) —ek H2ren bereziak diren ezaugarri linguistikoak aurkitu dituzte etorri handiko eta erabateko gaitasunarekin euskara 2H bezala erabiltzen duten ikasleen artean.

Talde honetako bi hizkuntzen ikaskuntza-esperientzia eta helduaroan elebidun egin direnena oso desberdinak dira. Bi taldeetako espe-

**Badirudi erabilitako aldaerak, tokian tokikoa edo batua izan, eragin handia duela euskal hiztun berri askoren hizkuntzarekiko auto-pertzepzioan.**

**Horrela, familian  
euskara ez bada  
ikasi, ideologia  
horren arabera,  
berdin da  
hiztunak nolako  
gaitasun  
komunikatiboa  
lortu duen edota  
bere identitatean  
euskarak  
berebiziko  
garrantzia duen,  
euskaldun zahar,  
zentzu teknikoan  
esanda, ezin da  
izan.**

rientziek interesa dute ikerketaren ikuspegitik, jakina. Baina elebidun-tze-prozesua haurtzaroan izan dutenen artean honako gai honek arreta berezia eskatu digu: badu abantailarik euskara haurtzarotik murgiltzearen bidez ikasteak, esperientzia pribilegiatua kontsideratu daitekeena bestalde, batez ere "barrukoak" diren identitate eta atxikimenduari dagokionean, eta erabilera-mailako portaerari dagokionean? Arestian esanda bezala, emaitzak behin behinekoak izanagatik hizkuntza-identitatearen inguruan argi-izpiren bat ekar dezakete.

*Euskaldun zaharra* terminoari dagokionez, gazteek 3. atalean azal dutako emaitza antzekoak ematen dituzte. Pentsa zitekeen murgiltze goiztiarrean ikasitako gazteek, edo haietako batzuk behintzat, euren burua *euskaldun zahartzat* hartuko zutela baina ez da izan horrela. Eta haien burua euskaldun zahar ez jotzeko arrazoiak arestian azal dutako berberak dira. Hau da, batez ere familiaren bidez ikasi ez izanak baldintzatzen du euskaldun zahar modura kontsideratua izatea. Horrek sendotzen du lehenago proposatutako behin-behineko ondorioa: hiztun berrientzat adiera hori (*euskaldun zaharra*) abiapuntuan "familiako transmisioari" lotua dago, arestian aipatutako *Ama-hizkuntzaren Ideologiak* eragindakoa da. Azpimarratzekoa da *Ama-hizkuntzaren Ideologia* ez dela auzitan ipintzen euskarazko ikaskuntza goiztiarra egin dutenen kasuan.

Beraz, eztabaida edo ikergunea *euskaldun* eta *euskaldunberri* adieren artean dago. Ikus ondorengo aipuak:

- (11)— Nola ikusten duzue zuen burua? (Gazte-Do-M, 446)  
— Euskaldunak. (Gazte-Do-E, 447)  
— Berria ez ze hiru urtekin ikasi genun, baino zaharra ere ez. (Gazte-Do-B, 449)
- (12)— Baina zuk txiki-txikitatik hitz egiten dezu, ezta? (ZU-A, 51)  
— Bai, ni hiru urtekin hasi nintzen eskolan eta hiru urtekin, baina ni beti izan naiz euskaldunberria eskolantzat. Adibidez, eman dotsu oharrak beti, euskaldun berriak, eta holan in behar genun, beti. O sea... (ZU-C, 52)  
— Gurasoak erdaldunak direla. (ZU-A, 53)  
— Bai. (ZU,-C, 54)  
— Baina zuk zure burua? (ZU-M1, 55)  
— Ni euskalduna. Ez det esaten ez berri, ez zahar, ez, ni euskalduna naiz euskera erabiltzen detelako. (ZU-C, 56)
- (13)— Eske ez dakit, ez dakit. Aber, nik gehiau erderaz hitz egiten det, baino, eske, euskeraz dakit ta euskeraz hitz egin dezaket, eske ez dakit, euskalduna ez da ze ez da nere ama hizkuntza

eta ez det ordu guztitan ta momentu guztitan euskeraz hitz egiten, ordun ezin det euskaldun, euskaldun naizela esatea. / [Zer da euskalduna izatea?] Euskaraz pentsatzea, nere ustez hori euskalduna izatea dela, bueno, nik adibidez ezin det hori esan. Ta gero euskaldun izatea naizela hori ez eukita, osea, nire lehenengo hizkuntza erdera izanda, ba ezin det, ezin det esan. (Gazte-Do-C, 453/455)

Azken aipuak erakusten du Gazte-Do-C-k zer nolako zalantzak dituen bere burua *euskaldun* modura definitzeko. Horretarako hainbat arrazoi ematen ditu. Parte-hartzaile hauek oso ondo bereizten dute (a) “euskaraz hitz egiteko gai izatea” eta (b) “*euskalduna*, euskal hiztuna izatea”.

Ikerketaren ikuspegitik interesgarria da jakitea zer arrazoi izan dezakeen euskaraz hitz egiten duen pertsona batek euskal hiztuna ez dela esateko edo hautemateko. Lehenago egindako azalpen-ildoari jarraiki, pentsa daiteke *euskaldun* adiera *legitimosunarekin* lotuta dagoela.

Idea hori oso sendo agertu zaigu unibertsitateko ikaslez osatutako eztabaida-taldean bildutako iritziak aztertuta. Alde batetik, parte-hartzaileek *euskaldun* izatea zer den eztabaidatzen dutenean bi esanahi desberdintzen dituzte: *euskal hiztuna* eta *euskal herritarra* (*kultura edota nazio-identitateari lotua*). Denek euskal herritartzat dute euren burua, denek aitortzen diote euren buruari euskal identitate kultural edo nazionala, baina batzuk *euskal hizkuntza-identitatea* ukatzen dute. Ikus ondoko aipuak:

- (14) — Hizkuntza bakarrik baldin bada, ez, baino orokorrean zu nola sentitzen zean, ba bai, euskalduna, hemengoa, baino euskerarekiko ez. (Gazte-Do-E, 469)
- (15) — Bai, bai nik adibidez lotzen dut euskaldun izatea lehenengo ideia da Euskal Herrian bizitzea, baina gero hizkuntzarekin lotzen dut gehiago adibidez euskaldun berria deitzea edo. Nik adibidez ez dakit euskaldun berria naiz edo ez, ze euskara ez dut ama hizkuntza bezala eta euskalduna sentitzen naiz Euskal Herrian bizitzen naizelako bakarrik, baino..., hizkuntzarekiko ez dut lotura handia. (Gazte-Do-A, 477)

Partaideek egiten duten *euskaldun* adieraren bi esanahi horien arteko bereizketa fin hori dela-eta, eta bere burua nola antzematen duten azaltzeko erakusten duten interesa kontuan harturik, ondorengo bi interpretaziorako bide zabaltzen da:

**Euren hitzak erabiliz, “buruko eskemak” gaztelaniaz dituzte, hau da, pentsamenduak eta barne-gramatika gaztelaniazkoak dira eta euskarara itzultzen dituzte.**



**Auzia ez da  
pertsone bat  
hiztun natiboa  
den ala ez  
jakitea, baizik  
eta benetako  
hiztuntzat  
daukan bere  
burua ala  
benetako  
hiztuntzat  
izateko zerbaiten  
gabezia sumatzen  
ote duen.**

Lehenik, oso argi geratzen da ez dela gauza bera *euskaraz hitz egitea* eta *euskalduna izatea*. Beste hitzetan esanda, euskaraz hitz egiteak ez du automatikoki eta halabeharrez pertsona bat *euskaldun* egiten. Gainera, esan daiteke *euskaldun* adierak baduela hizkuntza identitatearen bustidura nabarmena.

Bigarrenik, hizkuntza hitz egite hutsarekin ez da ziurtatzen *hiztun legitimoa*, *benetakoa*, izatea, hau da, hizkuntza hitz egitea ez da nahikoa hiztun legitimo bezala sentitzeko, norberak hautemateko edo hautematua izateko.

Bere pertzepzioaren ikuspegitik, zerk ematen dio legitimotasuna hiztun bati? Zer da gazteentzat *euskaldun* izatea? Galdera-gakoak izan, diren arren, ikerketaren fase honetan ezin dugu ziurtasun osoz jakin zerk edo nork ematen dion hiztun bati *euskaldun* kontsideratzeko legitimotasuna. Nolanahi ere, orain arte aztertutako datuek erakusten dute legitimotasunaren inguruko autokontzeptua honako aldagaien baten edo batzuetan oinarrituta egon daitekeela: *hizkuntzarekiko atxikimendu-maila* (ikus. (15) aipua), *gaitasunaren inguruko norberaren balorazioa* edota *erabilera-maila* ((13) aipua). Parte-hartzaileek azpimarratzen dute erabilera eragile giltzarria dela, honako hiztunak laburbiltzen duen modura:

(16) — Euskera erabiltzea. Ba jakitea, baina baita ere erabiltzea, euskeraz erabiltzen dezunen ba zure hizkuntza bihurtzen da. (Gazte-Do-F, 486)

Ohartzeko modukoa da neska gazte horrek darabilen posesiboa: "**zure** hizkuntza bihurtzen da", hau da, euskara zure hizkuntza-identitatearen parte bilakatzen da.

## 5. ONDORIOAK

### I

Artikulu honetan Euskal Autonomia Erkidegoan egiten ari garen euskal hiztun berrien inguruko ikerketak emaniko behin-behineko emaitzak erakutsi ditugu, batez ere, hiztunen auto-pertzepzioetan eragin handiena duten eragileak ezagutzeko asmoarekin. Arreta berezia jarri dugu euskal hizkuntzaren eta identitatearen arteko harremanean, honako galderaren bitartez abiatuta: "zer motatako euskal hiztuna naiz ni?"

Emandako erantzunek hiru adiera ematen dute: *euskaldun zaharra*, *euskaldunberria* eta *euskalduna*. *Jatorrizko hiztun (euskaldun zahar)* eta *hiztun berriaren* arteko dikotomiari dagokionean, gure datuek partaideentzat *euskaldun zahar* adiera haiei ez dagokiela erakusten dute, ezta

euskara 2 urterekin hasita eskolan ikasi dutenei ere. Jokoan dagoena *euskaldunberri* eta *euskaldun* adieren artean dago.

Atera dezakegun bigarren ondorioa honakoa da: euskara ikastea, euskaraz hitz egiteko gai izatea ez da *euskaldun* izatearen parekoa. Euskaraz hitz egiteak ez du beti eta modu automatikoan legitimotasuna ematen. Gogoratu behar da, nolana ere, ideia hori euskara haurtzaro goiztiarrean ikasi eta 18 urte artean ikasketak euskaraz egin dutenen kasuetan ere antzematen dela. Partaideen diskurtsoak aztertu ondoren, adiera bat ala bestea aukeratzeko orduan jokoan dagoena euskal hiztun legitimoztat ala zerbait falta duen hiztuntzat duten bere burua da. Hiztun legitimo antzemateko zerbait falta izatekotan partaideek ez dute *euskaldun* adiera erabiltzen.

Zein dira eragile gakoak euskaraz egiten duen pertsona batek bere burua *euskaldun*, *benetako euskaldun* modura hautemateko? Behin-behinean, eta ikerketaren azken emaitzek baieztatuko dutenaren esperoan honako erantzunak proposatuko ditugu datu-mota bi erabilita:

1. Alde batetik, *euskaldun* modura definitzen diren parte-hartzaileen ezaugarriak:
  - Euskaraz hitz egiteko aukera handiak ohi dituzte. Euskara presente dute etengabe euren bizitza sozialean, batez ere familia inguruan eta lagun artean; eta horien artean askok *euskaraz bizitzeko* aukera dute.
  - Komunikazio-gaitasun handia dute, batez ere, ahozkoari eta esparru informalarri dagokionean. Gainera, euskalkia erabiltzeko aukera ere badute.
2. Bestetik, *euskaldun* modura identifikatzen diren parte-hartzaileek eurek zerrendatutako ezaugarriak, batez ere:
  - Euskara erabiltzea,
  - Euskaraz pentsatzea, eta
  - Euskarari atxikimendu argia dion pertsona izatea

Azken ohar moduan aipatu beharra dago euskararen gainbehera itzulbidean jartzeko ekimenean ahalegin handiak egin direla familia-giroan euskara ikasteko aukerarik ez duten pertsonak euskalduntzeko. Arrakasta ukazina da lortutakoa, izan ere, hiztun berri horietako asko euskal hiztun aktibo bihurtu dira. Nolanahi ere, lan handia egiteke dago oraindik, euren burua *benetako euskaldun* modura hartzen ez dutenen artean, auto-pertzepzio hori aldatzea nahi bada behintzat. ●

---

**Ondorioz,  
badirudi tokian  
tokiko aldaera  
bat erabiltzeak  
legitimitatea  
ematen diola  
hiztunari, hiztun  
onak bezala  
antzematen dira.**

**Badu  
abantailarik  
euskara  
haurtzarotik  
murgiltzearen  
bidez ikasteak,  
esperientzia  
pribilegiatua  
kontsideratu  
daitekeena  
bestalde, batez  
ere “barrukoak”  
diren identitate  
eta  
atxikimenduari  
dagokionean, eta  
erabilera-  
mailako  
portaerari  
dagokionean?**

## OHARRAK

1 Ikerketa hau Bizkaiko Foru Aldundia eta Deustuko Unibertsitatearen arteko *Bizkailab* ekimenaren diru-laguntzari esker egiten da. Espainiar Estatuko Ekonomia eta Lehiakor-tasunaren Ministerioak ere diruz lagundu du (FFI2012-37884-C03-03). Egileek eskerrak eman nahi dizkie erakunde horiei eta baita ikerketa honetan parte hartu duten pertsona guztiei ere.

2 Ikus COST Action - *New Speakers in a Multilingual Europe: Opportunities and Challenges*: [http://www.cost.eu/domains\\_actions/isch/Actions/IS1306](http://www.cost.eu/domains_actions/isch/Actions/IS1306)

3 Partaideen konfidenzialtasuna gordetzeko, haien aipuak gako baten bitartez emanda daude. Gakoaren lehen bi letrek zein eztabaida-talderi dagokion adierazten dute, adibidez, BE Bermio, ZU Zumaia, GA Gasteiz, Gazte-DO Donostian egindako gazteek osatutako taldea. Hurrengo letrak aipua egin duen partaidea adierazten du eta zenbakiak berbahartzea. Bestalde, irakurleak kontuan hartu beharko luke transkripzioa ez dela fonetiko, ortografia-arauei jarraituta baizik. Hala ere, hiztunek erabiltzen duten aldaeraren ezaugarriak gorde dira, izan ahozko eta bat-bateko hizkuntzaren adierazle izan tokian tokiko aldaeraren baten adierazle. Partaideak darabilen aldaerak informazio garrantzitsua ematen du hiztun bezala duen auto-pertzepzioa ulertzeko, besteak beste.

## BIBLIOGRAFIA

- Almgren, Margareta, Leire Beloki, Itziar Idiazabal eta Ibon Manterola. 2008. "Acquisition of Basque in Successive Bilingualism: Data from Oral Storytelling". In Siemund, P. & N. Kintana (arg.), *Language Contact and Contact Languages*, 239-259. Amsterdam: John Benjamins.
- Amorrortu, Estibaliz, Ane Ortega, Itziar Idiazabal eta Andoni Barreña. 2009. *Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Berria, 2011/03/13. <http://www.berria.info>.
- Bucholtz, Mary. 2003. "Sociolinguistic nostalgia and the authentication of identity". *Journal of Sociolinguistics* 7(3). 298–416.
- Europako Kontseilua. 2001. *A Common European Framework of Reference*. Strasbourg: Council of Europe. Euskarazko edizioa: HABE eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Eusko Jaurlaritza. 2005. *Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako erreferentzia markoa*.
- De Houwer, Annick. 2009. *Bilingual First Language Acquisition*. Bristol: Multilingual Matters.
- Eusko Jaurlaritza. 2012. *V. Inkesta Soziolinguistikoa*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Eusko Jaurlaritza. 2013. *Informazio orokorra. Hezkuntza-sistemari buruzko estatistika. Ikasleak mailaren, sarearen eta ereduaren arabera*. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Eusko Jaurlaritza. [http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/eu/contenidos/informacion/dia4/eu\\_indice/cursos.html](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/eu/contenidos/informacion/dia4/eu_indice/cursos.html).
- Eustat 2013. *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsua 2011*. [http://eu.eustat.es/elementos/ele0010600/ti\\_EAEko\\_urte\\_2ko\\_eta\\_gehiagoko\\_biztanleak\\_egoitza\\_duten\\_udalerriaren\\_40000\\_bizt\\_eta\\_adinaren\\_arabera\\_e](http://eu.eustat.es/elementos/ele0010600/ti_EAEko_urte_2ko_eta_gehiagoko_biztanleak_egoitza_duten_udalerriaren_40000_bizt_eta_adinaren_arabera_e)

uskara-maila\_orokorra\_kontuan\_hartuta\_2011 / tbl0010647\_e.html#  
axzz2jtSV5HoY

Mayring, Philip. 2000. “Qualitative Content Analysis”. *Forum: Qualitative Social Research* 1 (2). 1-10.

Meyerhoff, Miriam. 2002. “Communities of Practice”. In Jack K. Chambers, Peter Trudgill eta Natalie Schilling-Estes (arg.), *The Handbook of Language Variation and Change*, 526–248. Oxford: Blackwell.

O’Rourke, Bernadette and Fernando Ramallo. 2013. “Competing ideologies of linguistic authority in contemporary Galicia”. *Language in Society* 42:287-305.

O’Rourke, Bernardette, Joan Pujolar eta Fernando Ramallo (agertzeko). *New speakers of minority languages: the challenging opportunity. International journal of the Sociology of Language* zenbaki berezia.

Soziolinguistika Klusterra. 2006. *Euskal Herriko Kale Erabileraren IV Neurketa*. <http://www.soziolinguistika.org> (Azken irakurketa 2013ko iraila).

Skutnabb-Kangas, Tove eta Robert Phillipson. 1989. “‘Mother tongue’: The theoretical and sociopolitical construction of a concept”. In Ulrich Ammon (arg.), *Status and Function of languages and language varieties*, 450–477. Berlin eta New York: Mouton de Gruyter.

Urla, Jacqueline, Estibaliz Amorrortu, Ane Ortega, Jone Goirigolzarri eta Belen Uranga (agertzeko). “Authenticity and Authority among New Speakers of Basque”, *Proceedings of the Endangered Languages in Europe 2013 International Conference*. Minde, Portugal, 2013ko urriaren 17-18.

Woolard, Kathryn. 2008. “Language and identity choice in Catalonia. The interplay of contrasting ideologies of linguistic authority”. Kristen Suselbeck, Ulrike Muhlschlegel eta Peter Masson (arg.) *Lengua, nación e identidad: La regulación del plurilingüismo en España y América Latina*, 303-323. Frankfurt an Main; Vervuert/Madrid: Iberoamericana.